


ISEI - IVEI

**E2.2.1 CURRICULUM KONPETENTZIA DBHko 2.
MAILAN: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-
KOMUNIKAZIOA.**





ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA
BASQUE INSTITUTE FOR RESEARCH AND EVALUATION IN EDUCATION

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SALA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Edizioa: 2021ko urtarila

© ISEI•IVEI-k argitaratua

ISEI•IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-sistema Ebaluatuta eta Ikertzeko Erakundea

Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo

Tel.:94 476 06 04 – Fax: 94 476 37 84

info@isei-ivei.net – www.isei-ivei.hezkuntza.net



Aurkibidea

EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOKO KONPETENTZIAREN ESKURAPENARI BURUZKO DATUAK DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO (DBH) 2. MAILAKO IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 ETA 2019. 4

E2.2.1.1 taula eta grafikoak:..... 6

DBHko 2. mailako ikasleek lortutako zuzeneko puntuazioen bilakaera Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren dimentsioetan (Irakurmena, Entzumena eta Idazmena), guztira eta sexuaren arabera..... 6

E2.2.1.2 taula eta grafikoak:..... 7

Errendimendu-maila desberdinetako ikasleen ehunekoaren bilakaera DBHko 2. mailan, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*, guztira eta sexuaren arabera. . 7

E2.2.1.3 taula eta grafikoak:..... 8

DBHko 2. mailako ikasleek Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian lortutako zuzeneko puntuazioen bilakaera, geruzaren arabera (hizkuntza-eredua eta ikastetxearen titulartasuna). 8

E2.2.1.4 taula:..... 9

DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikasleen ISEK (Indize Sozio-ekonomiko eta Kulturala), titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza..... 9

E2.2.1.4 grafikoa:..... 10

DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikasleen ISEK (Indize Sozio-ekonomiko eta Kulturala), titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza. 2019. urtea. 10



EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOKO KONPETENTZIAREN ESKURAPENARI BURUZKO DATUAK DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO (DBH) 2. MAILAKO IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 ETA 2019¹.

Adierazle honek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleek Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian duten errendimendu mailari buruzko informazioa ematen du. Emaitzak 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019ko Ebaluazio Diagnostikoetan Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) lortutakoak dira, 250 puntuko batez bestekoa, 50 puntuko desbideratze tipikoarekin eta hiru errendimendu-maila dituen eskala batean.

Emaitzak aldagai jakin batzuk kontuan hartuta aztertzen dira: ikasleen sexua, hizkuntza-ereduak² eta ikastetxearen titulartasuna³ (geruzak), indize sozio-ekonomikoa eta kulturala (ISEK), irakasmilarekiko adin-egokitasuna (jaioturtea eta egiten ari den irakasmila), aitaren eta amaren ikasketen maila gorena, jaiolekua eta familia-hizkuntza.

2019ko Ebaluazio Diagnostikoan, Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, guztizko batez besteko puntuazioa 241 izan zen. 2009tik (250) 2019ra (241), guztizko batez besteko puntuazioen bilakaera negatiboa eta aldi osoko baxuena izan da. Zazpi Ebaluazio Diagnostikoetan, neskek mutilek baino batez besteko puntuazio altuagoak lortu dituzte (2019ko Ebaluazio Diagnostikoan aldea 20 puntukoa izan zen).

Hiru dimentsioen artetik, 2009tik 2019ra, Irakurmenean (240) eta Entzumenean (242), puntuazioak 10 eta 8 puntu egin du behera hurrenez hurren. Aztertutako zazpi urteetatik, Irakurmenean 2010ekoa izan da puntuaziorik altuena (257) eta Entzumenean 2013koa (266). Sexuaren aldagaiari dagokionez, neskek mutilek baino puntuazio altuagoak lortu dituzte hiru dimentsioetan eta zazpi ebaluazioetan. Alde horien artean nabarmenena Idazmenean ikusten da 2019an: mutilek (237) neskek baino 26 puntu gutxiago lortu dituzte (263); hain zuzen ere, horiek izan dira mutilek 2009-2019 aldiaren lortutako puntuaziorik baxuena eta neskek, berriz, handiena aldi horretan. Desberdintasun txikienak Entzumenean islatzen dira 2010ean eta 2013an (neskek mutilek baino 8 eta 7 puntu gehiago lortu dituzte, hurrenez hurren).

2019an, DBHko 2. mailako biztanleriaren % 46,6 erdiko mailan eta maila aurreratuan kokatzen da Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian eta % 53,4 errendimenduko hasierako mailan kokatzen da. Bilakaera-datuek adierazten dutenez, 2009 eta 2019 artean, okerrera egin da erdiko mailan (12,6 puntu) eta maila aurreratuan (2,7 puntu). 2010. urtea izan zen emaitzarik onenak izandako urtea, hasiera maila baxuenarekin (% 33,6) eta erdiko maila eta maila aurreratu altuenekin (% 66,5). Zazpi Ebaluazio Diagnostikoetan, mutilek, batez beste, neskek baino 13 puntu gehiago lortu dituzte errendimenduko hasierako mailan, eta aldiz, erdiko mailan eta maila aurreratuan, neskek mutilek baino 5 eta 8 puntu gehiago (hurrenez hurren) lortu dituzte batez beste.

¹ Informazio gehiagorako: Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019. Txosten orokorra. <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm>

² EAEn hiru hizkuntza-eredu daude: A (irakaskuntzako hizkuntza gaztelania), B (irakaskuntzako hizkuntza euskara eta gaztelania) eta D (irakaskuntzako hizkuntza euskara).

³ EAEn funts publikoak jasotzen dituzten bi sare daude: titulartasun publikokoa eta itunpekoa.



E2.2.1

Curriculum konpetentzia DBHko 2. mailan: Euskara

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



2019ko batez besteko puntuazioak geruzaren (ikastetxearen titulartasuna eta hizkuntza-eredua) aztertu ostean, ikusten da itunpeko D ereduak (254) lortu dituela emaitzarik altuenak; D eredu publikoa (244) dator jarraian; A eredu publikoak (181) eta itunpeko A ereduak (203) Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian lortutako emaitzak dira baxuenak. Jokabide hori bera errepikatzen da aurreko urteetan ere.

Indize Sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), irakasmilarekiko adin-egokitasuna, ikastetxearen titulartasuna, aitaren eta amaren gehieneko ikasketak, jaiotze-lekua eta familiako hizkuntza aldagaiak kontuan hartuta, 2019ko ebaluazioan aintzat hartzen den profila honako hau da: Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian emaitzarik onenak lortzen dituzten (erdiko mailaren eta maila aurreratuaren batuketa) DBHko 2. mailako ikasleak ISEK maila ertaina-altua dutenak dira (% 52,2), irakasmilarekiko adin-egokitasunean daude (% 52,6), familiako ikasketak maila gorenekoak dira (% 56,5), ez dira atzerritarrak (% 48,6) eta familiako hizkuntza euskara da (% 71,1). Konpetentzia honetan ikusten da hauek direla puntuaziorik baxuenak (2019ko erdiko maila eta maila aurreratuak batuz) lortzeko gehien eragiten duten aldagaiak: atzerritarra izatea (% 23,3), amak eta aitak ez dituzte derrigorrezko ikasketak amaituta (% 16,7), irakasmila errepikatu dute (% 11,6) eta ISEK baxua dute (% 32,4).



E2.2.1

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Euskara



HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



E2.2.1.1 taula eta grafikoak:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleek *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* lortutako puntuazioen bilakaera, *Irakurmena, Entzumena eta Idazmena*, dimentsioetan, guztira eta sexuaren arabera.

		2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019
Guztira	Guztira	250	258	256	256	249	250	241
	Neskak	259	264	263	263	255	257	251
	Mutilak	242	252	249	250	242	242	231
<i>Irakurmena</i>	Guztira	250	257	255	250	247	250	240
	Neskak	261	264	264	258	253	259	251
	Mutilak	240	250	247	242	240	241	230
<i>Entzumena</i>	Guztira	250	260	257	266	252	249	242
	Neskak	256	264	261	269	259	255	250
	Mutilak	245	256	252	262	245	244	234
<i>Idazmena</i>	Guztira	250	250	250	250	250	250	250
	Neskak	258	258	258	258	259	259	263
	Mutilak	243	242	242	242	241	240	237



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019.



E2.2.1

Curriculum konpetentzia DBHko 2. mailan: Euskara



HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



E2.2.1.2 taula eta grafikoak:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, guztira eta sexuaren arabera.

	Errendimendu maila HASIERA			Errendimendu maila ERDIA			Errendimendu maila AURRERATUA		
	Guztira	Neskak	Mutilak	Guztira	Neskak	Mutilak	Guztira	Neskak	Mutilak
2009	38,1	30,5	45,0	43,6	46,1	41,3	18,4	23,4	13,8
2010	33,6	28,9	38,0	42,4	44,1	40,7	24,1	27,0	21,3
2011	36,0	30,5	41,3	42,7	44,5	41,0	21,2	25,0	17,6
2013	37,1	31,8	42,3	41,7	43,0	40,5	21,2	25,2	17,3
2015	45,8	38,8	52,4	37,8	41,6	34,2	16,4	19,5	13,4
2017	45,6	38,4	52,6	37,5	40,6	34,5	16,9	21,0	12,9
2019	53,4	44,9	61,5	31,0	34,8	27,3	15,6	20,3	11,2



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019.



E2.2.1

Curriculum konpetentzia DBHko 2. mailan:
Euskara



HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



E2.2.1.3 taula eta grafikoak:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* geruzaren arabera (hizkuntz-ereduak eta ikastetxearen titulartasuna).

	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019
A Publikoa	166	172	174	178	178	189	181
B Publikoa	240	240	237	226	219	215	203
D Publikoa	263	268	265	264	254	254	244
A Itunpekoa	194	209	203	205	207	216	207
B Itunpekoa	254	258	252	248	242	237	229
D Itunpekoa	268	278	276	275	265	265	254



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019.



E2.2.1

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Euskara

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



E2.2.1.4 taula:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), adin-egokitasuna irakasmilarekiko, ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza.

		Ikasle %							Hasierako maila	Erdi-maila 2019	Maila aurreratua
		2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019			
ISEK	Maila baxua ²	16,7	17,4	16,9	14,9	19,4	19,3	19,1	67,6	24,0	8,4
	Maila ertain baxua ²	22,5	21,9	22,1	25,0	24,7	25,0	25,2	53,9	31,5	14,6
	Maila ertain altua ²	28,2	29,0	29,2	28,4	28,8	25,9	26,2	47,8	33,3	18,9
	Maila altua ²	32,6	31,6	31,8	31,7	27,2	29,8	29,4	48,8	33,0	18,2
Egokitasuna	Ikasmila egokia	82,0	81,2	83,0	83,1	82,5	85,4	85,4	47,4	34,4	18,1
	Ikasmila EZ egokia	18,0	18,8	17,0	16,9	17,5	14,6	14,6	88,4	10,6	1,0
Titulartasuna	Publikoa	43,9	45,0	45,0	44,6	47,2	46,1	46,0	53,2	31,3	15,6
	Itunpekoa	56,1	55,0	55,0	55,4	52,8	53,9	54,0	53,6	30,7	15,7
Gurasoen ikasketa mailarik altuena	Derrig. Ikask. bukatu gabe	2,9	2,6	2,9	2,8	2,7	2,4	2,2	83,3	14,5	2,2
	Derrigorrezko ikasketak	16,9	15,6	17,5	15,5	15,2	13,3	12,7	74,5	21,2	4,3
	Batxilergoa, HZ	32,5	32,9	36,4	34,1	36,0	34,9	33,5	57,6	30,5	11,8
	Goi mailako ikasketak	42,7	42,1	43,2	47,6	46,2	49,5	51,6	43,5	34,8	21,7
Jaioterria	Autoktonoa	95,5	95,1	94,8	94,2	93,6	93,4	92,4	51,4	32,0	16,6
	Atzerritarra	4,5	4,9	5,2	5,8	6,4	6,6	7,6	76,7	19,2	4,1
Familia-hizkuntza*	Euskara	15,7	20,4	20,7	22,5	21,4	19,3	18,5	28,9	40,3	30,9
	Euskara EZ dena	83,5	75,9	79,3	76,6	78,6	80,7	81,5	58,7	29,0	12,3

*2009 eta 2010. urteetan, ikasle kopuru txiki batek ez zuen etxeko hizkuntzaren galdera erantzun.



E2.2.1


Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan:
Euskara

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



E2.2.1.4 grafikoa:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleen ehunekoa *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetakiko bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza. 2019. urtea.



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2019.